

Durangoko Udala

Durangoko San Fausto jaietarako kartel lehiaketaren oinarriak

Durangoko Udaleko Kultura sailak 2022ko Durangoko San Fausto jaietako kartel lehiaketarako deialdia egin du.

1.- Lehiaketaren xedea

Lehiaketaren helburua da Durangoko San Fausto jaiak 2022an iragarriko dituen publizitatea eta kartelak irudikatzeko erabiliko den kartela aukeratzea.

Deialdi hau Durangoko Udalak 2021eko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onartutako 2022-2024 diru-laguntzen plan estrategikoan dago jasota.

2.- Parte-hartzaileak

Artista afizionatuek edo profesionalek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan.

Lehiaketan, egile bakoitzeko, gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango dira.

3.- Lanen aurkezpena

Obra guztiek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Gaia, kolorea eta teknika: librea (koloreak eta konposizioa), baina deialdi honen arrazoia kontuan hartu beharko da.

Honako hau izango da kartelari dagokion testua:

SAN FAUSTO JAIK 2022

DURANGO

Urriaren 12tik 23ra

Lanak aurkezteko neurria 70x50 cm-koa izango da (ez etzana).

Lanak aurkezteko, egileak eskari orria bete beharko du. Eskaera orria hurrengo plataformaren dagokion atalean egongo da:

<https://partehartu.durango.eus/>

Eskaeran hurrengo datuak jasoko dira: egilea identifikatzeko datuak (izena eta bi abizenak, NANa, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa). Honetaz gain, kartelaren goiburua edo izenburua.

Aurkeztuko diren lanak hiru digitalizaziotan plataformara igo beharko dira:

- 200 Kb-ko JPG
- 1 Mb-ko beste JPG bat

- Inprimaketaren azken tamainako bereizmen handiko PDF bat.

Kartel irabazlea jakin eta gero, egileak inprentara kartela bi kapetan entregatu beharko du: testuen kapa eta irudien kapa.

4.- Irudi-eskubideak

Aurkeztutako lan orok behar bezala kudeatuta eduki behar ditu karteleko edozein argazki, ilustrazio edo baliabide grafiko erabiltzeagatik eskubideak, baldin eta irudi-bankuetatik badatoz edo aurkeztutako lanaren egileak egin ez baditu. Horretarako, erabilitako irudiaren edo baliabide grafikoaren egile-eskubidearen titularren idatzizko baimena aurkeztu beharko du. Durangoko Udalak uko egiten dio aurkeztutako obren edukiak hirugarrenei eragiten dizkien erreklamazioen ondoriozko edozein erantzukizun edo kalteri. Era berean, generoen aurkezpenean orekara joko dute, ez dituzte rol eta estereotipo tradizionalak behartuko eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arteko ezberdintasunei buruzko gutxiespenezko tratamenduak saihestuko dituzte. Bakarrik pertsonen argazkiak erabili ahal izango dira baimena aurkeztean bada, edo haien tutoreena, 18 urtetik beherakoak badira edo erabakitzeke ahalmen murriztua duten pertsonen kasuan.

Aurkeztutako kartelek behar besteko kalitate teknikoa ez badute eta epaimahaiak hala baderitzo, lehiaketa eman gabe utzi ahal izango da. Kasu horretan, epaimahaiak egoki iritzitako artista edo estudioari eskatu ahal izango dio.

Kartelaren exekuzio teknikoak tonalitate edo testuen tamainaren aldaketaren bat eskatzen badu hobeto inprimatzeko, baita San Fausto Jaiak ospatzeko datak zuzentzea edo akats ortografikoak egitea ere, epaimahaiak aldaketa hori ezarri ahal izango du. Aldaketa hori egileari jakinaraziko zaio.

5.- Sariak

Lehiaketaren irabazleak 900 € jasoko ditu (PFEZari dagokion zatia deskontatuko zaio, % 19koa).

6.- Hautaketa-prozesua eta epaimahaiaren osaera

Kartel irabazlea aukeratzeko bi faseetan egingo da prozesua:

- Epaimahaikideak 7 kartel finalisten alde aurretiko aukeraketa
- Herritarren bozketa

Aldez aurretiko aukeraketa: Epaimahaia

Epaimahaia Jai Kontseiluak izendatuko du, eta bertako kideek, lehendakaria barne, eta Durangoko artearen munduarekin zerikusia duten pertsonak osatuko dute.

Deialdi honetarako izendatutako epaimahaiak 7 kartel finalistak hautatuko ditu bozketa bidez.

Aurkeztutako kartel guztietatik, lehenik eta behin, oinarrietan ezarritakoa betetzen ez dutenak kenduko dira. Ondoren, bigarren fasean, epaimahaikideek botorik ematen ez duten lanak bozketatik kenduko dira. Hirugarren fasean, epaimahaiko kide bakoitzak 5 kartel bozkatuko ditu, eta kartel bakoitzari 1 eta 5 puntu artean emango zaizkio

Baloraziorako ezarritako irizpideak honako hauek izango dira:

- a) Aurkeztutako lanaren kalitatea
- b) Esanahia: Durangoko San Fausto jaietako iragarkia aurkezteko eta irudikatzeko gaitasuna.
- c) Sormena proposamenaren garapenean

Puntuazio altuena lortzen duten 7 kartelak aukeratuko dira.

Epaimahaiak aukeratutako 7 kartel finalistak herri-bozketaren fasera igaroko dira.

Herritarrek bozketa egiteko, udalaren webgunean ikusgai jarriko dira

Herritarren bozkaketa:

1. Aurrez aurreko bozketa. Bozketa modu presentzialean egiteko prestatutako gune batzuk egongo dira. Gune horietan ordenagailu bat eta pertsona bat egongo dira parte hartzen laguntzeko.

2. Bozketa udalaren web orriaren bidez.

Durangoon errolatutako 16 urtetik gorako pertsonak eman ahal izango dute botoa, NANaren bidez identifikatu ondoren. Epaimahaiak aurrez hautatutako 7 kartelen artean kartel bakarra bozkatu ahal izango da.

Herri-bozketa irailaren 5etik 9ra egingo da.

Boto gehien jasotzen dituen kartelak irabaziko du.

Herritarrek parte hartzeko epea eta bozkatzeko prozedura behar bezala iragarriko dira.

7.- Epaimahaiaren ahalmenak

Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan, edozein unetan deskalifikatu ahal izango ditu inguruabar hauetakoren bat duten lan guztiak:

- Zalantzazko egiletza dutenak
- Pertsonen duintasunaren aurka egiten dutenak.
- Beste obra batzuen plagioa direla uste dutenak eta, halakotzat hartu ezin arren, imitazioa dakartenak, beste obra batzuetan inspiratuta daudenak edo horiekin bat datozenak, epaimahaiak inguruabar horiek ezagutu ondoren, originaltasun-merezimenduak falta zaizkiola erabakitzeke arrazoi izan daitezen.

Herri-bozketa hasi ondoren deskalifikatzen bada, bozketa horrek gainerako kartel finalistekin jarraituko du.

Epaimahaiaren ahalmenei kalterik egin gabe, herri-bozketaren epean egiten diren kexak edo erreklamazioak bakarrik hartuko ditu kontuan epaimahaiak.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Hala ere, epaimahaiak epaia berrikusi eta baliogabetu ahal izango du, 4. Puntuan edo puntu honetan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen dela irizten badio.

8.- Epaimahaiaren erabakia eta ebazpena

Izendatutako epaimahaia bildu ondoren, Kultura Arloko teknikaria idazkari gisa jardunez, aurrez hautatutako 7 kartelak argitaratuko dira.

Herri-bozketaren ondoren, ebazpen-proposamena aurkeztuko zaio organo emaileari, alkateari, behin betiko ebazpena eman dezan.

9.- Lanak aurkezteko epea eta tokia.

Lanak aurkezteko azken eguna 2022ko abuztuaren 31 izango da, 14:00etan.

Obrak Durangoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), Barrenkalea 17, entregatuko dira.

Lehiaketari buruzko informazio gehiagorako telefono bat jarriko da: 94 603 00 30.

10.- Saritutako lana eta aurkeztutakoak

Irabazlearen kartela 2022ko irailaren 14an argitaratuko da. Saritutako lana Durangoko Udalaren jabetzakoa izango da aurrerantzean, eta egileak, gainera, kartel horren gainean erreproduktzio, banaketa eta komunikazio publikoaren modalitateetan ustiapen-eskubideak laga dituela ulertuko da; hori guztia Udalaren alde.

Aurkeztutako lanak Durangoko Udalaren webgunean jarri ahal izango dira ikusgai. Era berean, Udalak sarituak izan ez diren lanak jendaurrean erakusteko eta zabaltzeko eskubidea izango du, 7 kartel finalistak hautatzen direnetik 2022ko azaroaren 30era arte. Eskubide horiek doan eta eskusiboki lagako dira obren erakusketa amaitu arte, eta

epaimahaiak bere esku izango du, espazio-arrazoiengatik, bere ustez erakusgai jar daitezkeenak izendatzeko ahalmena.

11.- Baldintzak

Deialdi honetako parte-hartzaileek bertan jasotako baldintzak onartzen dituzte. Zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) xedatutakoaren arabera, saritutako pertsonen helbide elektronikoak Kultura Sailak horretarako dituen antolaketa-arloetako udal-fitxategietan sartuko dira. Beraz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko edo datuak transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak onartzen duen bezala. Horretarako, Durangoko Udaleko Kultura Sailera jo beharko da.

12.- Aurrekontu-partida.

Sarietara bideratutako guztizko zenbatekoa 900 eurokoa da, Durangoko Udalaren 2022ko aurrekontuetan San Fausto jaietako kartel lehiaketarako esleitutako 61.3380.48101 partidaren kontura.

13.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena.

Organo instruktorea saria kudeatzeaz arduratzen den pertsona izango da, eta egoki iritzitako jarduketa guztiak egingo ditu dagokion ebazpen-proposamena formulatzeko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko.

Balorazio-mahaia lehiaketarako izendatua izan den epaimahaia izango da, instrukzioaz arduratzen den pertsona idazkaria izango delarik. Hau saioetara bertaratuko da, ahotsa izanik baina ez botorik.

Prozeduraren instrukzioa bideratzeko Durangoko Udalaren diru-laguntzen gaineko ordenantza orokorrak ezartzen duena hartuko da aintzat.

Durangoko Udaleko alkateak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena egin eta gero.

Diru-laguntza behin betiko emateko erabakiak amaiera emango dio administrazio-bideari. Ebazpenak, gutxienez, onuradun izan diren pertsonen zerrenda eta sariak jasoko ditu.

Ebazpena udaletxeko iragarkien taulan argitaratuko da, administrazio prozedura erkideari buruzko, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Halaber, Udaleko www.durango.eus web gunearen bitartez ere emango da ebazpenaren berri.

14.- Saridunen betebeharrak.

Saridunek eurek joan behar dute sari-banaketa ekitaldira, horretarako adieraziko zaien toki, egun eta orduan. Sariduna ezingo balitz ekitaldira joan, ordezkari bat bidali beharko du.

15.- Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

16.- Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan jasotzen ez denari dagokionez, Durangoko Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra aplikatuko da. Honetaz gain, eta bertan jasotzen ez denari dagokionez, diru-laguntzei buruzko, azaroaren 17ko, 38/2003 Lege organikoan eta, uztailaren 21eko, 887/2006 Errege Dekretuan onetsitako araubidean jasotakoa hartuko da aintzat. Era berean, honako lege testu hauek ere aplikatuko dira: administrazio prozedura erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legea, deialdia egin den unean indarrean dagoen aurrekontua betetzeko araua eta aplikagarria den bestelako araudia. Halaber, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua ere bete behar da, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotzen dena.